



APEZPIKUEN PASTORALA

EAEko gotzainei Batasunaren zigorgabetasuna defenditzea leporatu die PPko gobernuak

Pastorala gizartearen iritziaren isla dela diote, berriz, Eusko Jaurlaritzak eta Batasunak

Espainiako Gobernuak gogor erantzun zion atzo Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako gotzainek idatzitako pastoralari —ilegalizazioak bizikidetzak okertuko duela esan dute gotzainek—. Batasunaren «erabateko zigorgabetasuna» defenditzea leporatu die apezpikuei. Jaurlaritzako alderdiek eta Batasunak, berriz, gizartearen iritziaren ispilutzat jo dute pastoralak, eta gotzainen iritzia errespetatzeko eskatu diete kontra azaldu diren alderdiei. /6-7

AUZITEGI NAZIONALA

Garzonek aske utzi du Iñaki Mallagarai, 30.000 euroko bermearekin

Ordu eta erdiz deklaratu zuen atzo, Madrilgo Auzitegi Nazionalan

Asteazkenean atxilotu zuten, eta ETArri laguntza ematea leporatu zioten, herriko tabernen aurka apirilean hasitako operazioaren barnean. /9

2002KO HEGO KOREA ETA JAPONIAKO MUNDUKO KOPA

FRANTZIA	0
SENEGAL	1

Senegalek egungo txapelduna garaitu du ezustean

Afrikarrek kinka larrian utzi dute Frantzia, faborito nagusietakoa

INAUGURAZIO EKITALDIA

Ikusgarri eta bizia izan zen, eta txistuak entzun ziren agintarien aurka


/31-38



LUIS TEJIDO / EFE

Senegalgo jokalariek Frantziaren aurkako garaipena ospatzen, atzo, Seulen.

GAURKO ELKARRIZKETAK



PADDY WOODWORTH
'The Irish Times' egunkariko kazetaria

«Gonzalez izan zen GALen ikerketa trabatu zuen X jauna» /10

HAN FRAETERS
Unibertsitateetako hezkuntza aditua

«Teknologiak erabiliz bideragarria da unibertsitate eredu propioa eraikitzea» /15

DALILA TALEB
Aljeriako FFSko diputatu sozialista

«Ostegunekoa ez da hauteskunde gardena izan, iruzurra izan da» /25

ITSAS MENDI karabanak



Kontzesionario Ofiziala

Autokarabanak: HYMER, KNAUS, PILOTE, RIMOR, BENIMAR.
Autokarabanak atokairuan

Karabanak: KNAUS, ERIBA, ROLLER.

Furgoneten eraldaketa

Salmenta ondoko

zerbitzu bermatua

(Larunbatetan goiz eta arratsalde zabalik)

☎ (943) 59 32 90

ANDOAIN (Gipuzkoa)